

EPE 2020 deialdiaren laburpena: Bigarren Hezkuntzan sarrera librea, barne sarbidea eta espezialitate berriak eskuratzeko prozedura. Lanbide Heziketan sarrera eta espezialitate berriak eskuratzeko prozedura

OHAR OROKORRAK

- ✓ **Proba** guztiak **espezialitatea** emango den **hizkuntzan** egingo dira.
- ✓ **Eskaerak aurkezteko epea**: urtarrilaren 16tik otsailaren 4ra (23:59ak arte).
- ✓ **EPEra aurkezteko ekitaldia**: ez da izango maiatzaren 10a baino lehen. Aurkezten ez direnak eta programazioa entregatzen ez dutenak prozeduratik kanpo geratuko dira..
- ✓ **Hezkuntza Departamentuaren esteka** deialdiarekin lotutako edozein gai kontsultatzeko:
http://www.navarra.es/home_eu/Servicios/ficha/8428/Bigarren-Hezkuntza-eta-Lanbide-Heziketako-irakasleentzako-lehiaketa-oposizioa-2020

PARTE HARTZE PROZEDURA

- ✓ **Sarbide librea**: Baldintza orokorrak eta espezifikak betetzen dituzten pertsonak parte hartu ahal izango dute.
- ✓ **Ezgaitasuna edo erreserba sarbidea**: Aurreko baldintzak betetzeaz gain % 33ko edo hortik gorako desgaitasuna aitortuta duten pertsonak, baldin eta lortu nahi den kidego eta espezialitatean irakasle izateko gaitasun funtzionala badute.
- ✓ **Barne sarbidea**: B taldeko irakasle funtzionarioak, Bigarren Hezkuntzako Kidegoan sartzeko eskatzen diren titulazioak izanik karrerako funtzionario gisa gutxienez sei urte eman dituztenak.
- ✓ **Espezialitate berriak eskuratzeko sarbidea**: Eskuratu nahi duen espezialitatearen kidego bereko funtzionarioak, Nafarroako Foru Komunitatean destinoa dutenak.

Eskakizunak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean eduki beharko dira.

ESKAERAK, TASAK ETA DOKUMENTAZIOA

- ✓ Eskaerak telematikoki egingo dira, Hezkuntza Sailaren webgunetik formularioaren bidez. Kidegoa, espezialitatea, hizkuntza eta parte hartzeko prozedura (sarrera librea, desgaitasun-erreserba, sarbidea, eskuratzeko) zehaztu beharko dira:
http://www.navarra.es/home_eu/Servicios/ficha/8428/Bigarren-Hezkuntza-eta-Lanbide-Heziketako-irakasleentzako-lehiaketa-oposizioa-2020
- ✓ Aurkeztutako azken eskabidea baliozkotzat jotzen da.
- ✓ Parte hartzeko baldintzak eta eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriak eskaera aurkezteko epea amaitzen den egunean aurkeztu beharko dira.
- ✓ Eskaera on line aurkeztean, hautagaiek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute kopia elektronikoetan:

1.- Sarbide Librea:

- NAN eskaneatua.
- Erantzukizunpeko adierazpena.
- Kidego, espezialitate eta hizkuntza bakoitzeko ordainagiria.
- Titulua.
- Prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa duela egiaztatzen duen dokumentazioa.
- EGA, baliokidea edo ordainagiria.

2.- Ezgaitasun erreserba (sarrera librerako dokumentazioaz gain):

- ANADP edo IMSERSOren ziurtagiria.

3.- Acceso (sarrera librerako dokumentazioaz gain):

- Hezkuntza Administrazioak emandako ziurtagiria, kidegoa, espezialitatea, erregistro pertsonalaren zenbakia eta kidegoan sartzeko data adierazten dituenak.

4.- Espezialitate berriak eskuratzea:

- NAN eskaneatua..
 - Kidego, espezialitate eta hizkuntza bakoitzeko ordainketa-gutuna.
- ✓ Hezkuntza Departamentua behartuta dago, bi hizkuntzetako plazak deitzen diren espezialitateetan, azterketak une desberdinetan egitera. (Ez dakigu espezialitate bat baino gehiagotara aurkezteko aukerarik emango duten. Espezialitate eta hizkuntza batean izena emateak eta onartzeak ez dio hautagaiari espezialitate ezberdinetara aurkeztea bermatuko).

HAUTAKETA-ORGANOAK

Hautaketa-organoetan parte hartzea nahitaezkoa da. Kideak izendatzeko salbuespenak:

- ✓ 2018ko lan-eskaintza publikoan epaimahaiko kide gisa parte hartu izana.
- ✓ Nafarroako Gobernuan zentroko zuzendari lanpostuetan edo erantzukizuneko postuetan aritzea.
- ✓ Baremazio Batzordeko kide izendatua izatea.

MEREZIMENDUEN BAREMOA

- ✓ Merezimenduak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean eduki beharko dira.
- ✓ Espediente akademikoak ez badu zenbakiz adierazitako batezbestekoa, Sailak ez du kalkulatu; horregatik, dagokion unibertsitateari eskatu behar zaio kalkulatu eta ziurtagiri batean jasotzeko.
- ✓ Irakasle-ikasketakoak ez diren graduak bigarren zikloko titulazio gisa zenbatuko dira. Bi ziklo osoak egin direla egiaztatzeko, espediente akademikoa aurkeztu beharko da. Diplomaturetatik abiatuta egiten diren graduak ez dira kontuan hartuko. Ez da puntuaziorik emango, titulazio berekoak ez diren espezialitateak dituztelako.

HAUTAKETA-PROZEDURAK GARATZEA

- ✓ Sarrera libreko, erreserbako eta sarbideko prozedurek lehiaketa-fase bat eta oposizio-fase bat izango dituzte.
- ✓ Espezialitate berriak eskuratzeko kontratuek oposizio-fase bakarra izango dute.

1. OPOSIZIO FASEA:

OPOSIZIO ATALA SARBIDE LIBRERAKO ETA EZINTASUNERAKO = %60 BALIOA (Probak haien artean eliminatorioak dira)	
Aurkezpen ekitaldia: programazio didaktikoa eskura ematea / <i>Orientazio espezialitatea:</i> esku hartze programa zentroan edo orientazio taldean.	
1. PROBA: PRAKTIKOA + GAIA (2 ATALETAN AURKEZTEA NAHITAEZKO DA) (%50)	
A) zatia: Kasu praktikoa (%50) Gehienez 3 orduz.	- Orik 10era puntuatzen da zati bakoitza. - 2,5 gutxienez atera behar da zati bakoitzean batezbestekoa egin ahal izateko. Bien arteko batezbestekoan 5 lortzea ezinbestekoa da. - Zati bakoitzari %50 ematen zaio .
B) zatia: Garatu beharreko gaia (V. eranskina) (%50) Zozketaz egiten da: - 4 edo 5 gairen artean (espezialitatearen arabera) bat garatu. Gehienez 2 orduz.	

2. PROBA: PROGRAMAZIOA + UNITATEAREN DEFENTSA (2 ATALETARA AURKEZTU BEHAR DA) (%50)

A) zatia: Programazio didaktikoaren aurkezpena eta defentsa (%30)

- VIII eranskinean aipatutakoa kontuan hartu behar da.
- Programazioaren kopia bat entregatu behar da.
- Aurkezpenerako nahi bezain materiala eraman daiteke eta programazioaren beste kopia bat.
- Gehienez 30 minutu iraungo du.

B) zatia: Unitate didaktiko baten prestaketa eta ahozko (%70) aurkezpena

- Ordubete emango zaio hautagaiari prestatzeko.
- Aurkezpenerako nahi bezain materiala eraman daiteke eta orri bateko gidoi bat erabili ahal izango du (gero tribunalari eman behar zaio).
- Gehienez 30 minutu. Ondoren, epaimahaiak galderak egin ahal izango ditu (15 minutu).

- 0-10 bitarte ebaluatzen da proba bakoitza.

- 2,5 gutxienez atera behar da zati bakoitzean batazbestekoa egin ahal izateko. Bien arteko batazbestekoan 5 lortzea ezinbestekoa da.

- A zatiak %30 balio du eta B zatiak %70.

OPOSAKETA FASEA BARNE SARBIDERAKO = %55 BALIOA

Proba bakarra:

- **1. zatia:** gai baten ahozko azalpena (V. eranskina), planteamendu didaktikoarekin, 8-9 gaien artean aukeratua (45 minutu). Ondorengo eztabaida (15 minutu).
- **2. zatia:** zati praktikoa (VII. eranskina).

- Prestatzeko 2 ordu, eta beharrezko material osagarria erabili ahal izango da.

- 1. zatia (% 70) eta bigarrena (% 30) puntuatuko dira.

ESPEZIALITATE BERRIAK ESKURATZEKO OPOSIZIO-FASEA = "gai" edo "ez gai"

Proba bakarra:

- **1. zatia:** gai baten ahozko azalpena (V. eranskina), planteamendu didaktikoarekin, 4-5 gaien artean aukeratua (45 minutu). Ondorengo eztabaida (15 minutu).
- **2. zatia:** zati praktikoa (VII. eranskina).

- Prestatzeko 2 ordu, eta beharrezko material osagarria erabili ahal izango da.

- 1. zatia (% 70) eta bigarrena (% 30) puntuatuko dira.

2. LEHIAKETA FASEA: MERITOAK

LEHIAKETA ATALA SARBIDE LIBRERAKO ETA EZINTASUNERAKO (gehienez 10 puntu) = %40 BALIOA (I. eranskina)

<i>I. atala</i>	1.1 Kidego berean eta ikastetxe publikoetan: 0,7 puntu ikasturte bakoitzeko. 1.2 beste kidego eta ikastetxe publikoetan: 0,35 puntu ikasturte bakoitzeko. 1.3 Kidego berean eta beste ikastetxe batzuetan: 0,15 puntu ikasturte bakoitzeko. 1.4 beste kidego eta ikastetxe batzuetan: 0,1 puntu ikasturte bakoitzeko.	Gehienez 7 puntu (10 urte)
Aurretiazko lan-esperientzia		

<i>II. atala</i> Formakuntza akademikoa	2.1 Alegatutako tituluaren espediente akademikoa: 1,5 puntu, gehienez. 2.2 Graduondoak eta masterrak: puntu 1 bakoitzeko. - Doktoregoa: puntu 1. - Doktoregoko aparteko saria: 0,5 puntu. 2.3 Unibertsitate tituluak (1. edo 2. ziklokoak): puntu 1. 2.4 Araubide bereziko irakaskuntzako eta lan-prestakuntzako titulazioak: - Musika edo Dantza Titulu profesionala: 0,5 puntu. - HEOKo gaitasun titulua: 0,5 puntu. - Goi Mailako teknikari tituluak Arte Plastiko eta Diseñuan, Lanbide Heziketan eta Kirolean: 0,2 puntu.	Gehienez 5 puntu
<i>III atala</i> Bestelako merituak	3.1 Formakuntza (gehienez: puntu 1) kreditu edo 10 ordu bakoitzeko 0,020 puntu emanen dira . 3.2 Euskara, ingelesa, frantsesa edo alemana titulazioak. - C2: 1 puntu - C1: 0,75 puntu - B2: 0,5 puntu	Gehienez 2 puntu

LEHIAKETA ATALA BARNE SARBIDERAKO (gehienez ere 10 puntu) = %45 BALIOA (II. Eranskina)		
<i>I. atala</i> Antzinatasuna	1. Antzinatasuna: urtero 0,5 puntu (gehienez 4 puntu). 2 Funtzio espezifikoak burutzea eta ebaluazio boluntarioa (zuzendaria, ikasketaburu...): 2,5 puntu gehienez.	Gehienez 5,5 puntu
<i>II. atala</i> Formakuntza	Prestakuntza eta hobekuntza-ikastaroak: a) 3 kreditutik gora: 0,2 puntu b) 10 kreditutik gora: 0,5 puntu	Gehienez 2 puntu
<i>III atala</i> Meritu akademikoak eta beste merituak	3.1 Meritu akademikoak (1,5 puntu gehienez): : - Postgradoak, doctoretzak 1 puntu eta ez-ohiko saiak: 0,5 puntu. - Unibertsitate beste titulu batzuk. - Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Goi eta Erdi Mailako Kontserbatorioetako, Arte Eskoletako eta Lanbide Heziketa espezifikoko titulazioak: • Musika eta dantza titulu profesionala, Hizkuntza-Eskolako erdi-mailako ziurtagiria (0,5 puntu). • Arte Plastikoak eta Diseinuko goi-mailako Titulua, Lanbide Heziketa eta Goi-Mailako Kirol Teknikaria Titulua (0,2 puntu). 3.2 Argitalpenak, hezkuntza proiektuetan parte hartzea eta meritu artistikoak (1,5 puntu gehienez). - Ikastaro bakoitzeko: 0,2 puntu. - Ikastaroan koordinatzaile izateagatik: 0,5 puntu.	Gehienez 3 puntu

3. ESKEINITAKO PLAZAK

ESPECIALIDADES	EUSKARA				CASTELLANO			
Sartzeko modua - Modo de ingreso*	Libre	sarbi dekoa k	Erreserba Reserva	Osotara Total	Libre	acceso	Erreserba Reserva	Osotara Total
Filosofia	3	4	0	7	4	5	1	10
Latín					1	3	1	5
Lengua castellana y literatura	7	8	2	17	19	24	5	48
Geografia - Historia	8	11	3	22	9	12	3	24
Matematika	12	13	1	26	23	27	5	55
Fisika - Kimika	6	7	2	15	9	11	3	23
Biologia - Geologia	7	7	1	15	6	7	2	15
Marrazketa / Dibujo	3	4	1	8	7	9	2	18
Frantsesa / Francés	2	4	1	7	4	5	1	10
Ingelesa / Inglés	12	14	1	27	20	24	5	49
Gorputz Hezkuntza / Educación Física	8	9	1	18	11	11	1	23
Orientazioa / Orientación	6	8	2	16	10	14	3	27
Teknologia	3	5	2	10	2	5	2	9
Euskal Hizkuntza eta Literatura	12	16	5	33				
Administración de empresas					4	6	1	11
Formación y orientación laboral					8	10	2	20
Hostelería y Turismo					3	3	0	6
Informática					2	4	2	8
Intervención Sociocomunitaria	1	3	1	5	3	4	1	8
Organización y Gestión Comercial					3	5	1	9
Organización y Proyectos de Fabricación Mecánica					6	7	1	14
Sistemas Electrotécnicos y Automáticos					3	5	1	9
Mecanizado y Mantenimiento de Máquinas					5		1	6
Operaciones de Producción Agraria					5		0	5
Procesos de Producción Agraria					3	3	0	6
Procedimientos Sanitarios&Asistenciales					5		1	6
Servicios a la Comunidad					4		1	5
Sistemas y Aplicaciones Informáticas					5		0	5

* **Txanda irekia + sarbidekoak** (barne-sustapena)/ **Ingreso libre + de acceso** (promoción interna)

* **Erreserba/Reserva:** Aniztasun funtzionala – Diversidad funcional